

1.-Elementu kimiko hauek emanda A(z=20) eta B (z=17), erantzun, arrazoiak emanez, galdera hauei:


- Adierazi elementu horien konfigurazio elektronikoa.
- Adierazi zer talde eta zer periodotan dauden bi elementu horiek.
- Adierazi bietatik zeinek izango duen ionizazio-potentzialik handiena
- Aukera hauen artetik, esan zeinek adierazten dituen Z=20 elementuak duen energia mailarik handieneko elektroien zenbaki kuantikoak:

$$(4,1,-1,+\frac{1}{2}) \text{ b) } (4,0,-1,-\frac{1}{2}) \text{ c) } (3,2,-2,+\frac{1}{2}) \text{ d) } (4,0,0,-\frac{1}{2})$$

2.- Elementu kimiko hauek emanda z=9; z=11; z=15; z=17, erantzun, arrazoiak emanez, galdera hauei:

- Adierazi elementu horien konfigurazio elektronikoa eta zer talde eta zer periodotan dauden.
- Ordenatu elementuak erradio atomiko txikienetik handienera. Arrazoitu erantzuna.
- Ordenatu elementuak ionizazio-energia txikienetik handienera. Arrazoitu erantzuna.

3.- Elementu baten konfigurazio elektronikoa hau da:



- Zein da bere zenbaki atomikoa?. Adierazi bere taldea eta periodoa.
- Arrazoitu zer ioi mota eratzeko joera izango duen.
- Adierazi, arrazoituz, ioi horren tamaina atomoarena baino handiagoa ala txikiagoa den.
- Adierazi zer zenbaki kuantiko izango dituen bai atomo neutroa bai ioiaren elektroirik kanpokoena.